



Iñaxio Urresti Venezuelara fan aurtxuan

Gerra aurreko azkeneko bi hamarkadatan (1920-1936) karrerista asko eta on samarrak izan ziran Oñatin: banaka batzuk aittaktetiarren, Benito **Aiastu Farretxe**, Agustin **Lizarralde Otero**, Joxe **Zubia Antzo**, Roman **Igartua** Olabarrietako Tabernakua, Gregorio **Idigoras Sorraluze** edota Klaudio **Leturiaga Banastagin** gogoratuko ditugu. Horrein artian Benito eta Klaudio nabarmendu ziran gehixentxuen, erdi-profesionalak izatera ailegautuz eta hainbat karrera irabaziaz.

Gerra osteko lehenengo urtietan, ostera, ez zan horrein besteko txirindularirik sortu gure herrixan. Bizikletarako afiziōnik ez zan falta eta karrera inportantiaik izaten giituan: ziklo-krosa eta Arantzazurako igoeria ixa urtero, eta batzuetan Bidaurretako kilometro lanzaua be bai. Hala eta be, karrerista gutxitxok destakau eben txantxiuarren artian. Orduan afizionaduetan gehixuen jardundakua Iñaxio **Urresti** kaletarra eta Felix **Igartua** Olabarrietakua ditugu. Bigarren hau Romanen anaia.

Iñaxio Urresti oso popularra zan Oñatin, karrerista moduan eta Rosalio anaiarekin batera bizikleta-taillera eukalako Bake-txe kalian, Kantonosten. Fabrikako orduetatik kanpora zabalduko euen *alkilerra*, Iñaxiok lanian Fundiziñuan ziharduen-eta. Kontua da Urrestitarrak, familia osua, **Venezuelara** fan zirala orain dala 50 urte pasatxo. Gaurko argazkixa Fundiziñoko landiadiak egin otsain despedidakuan (1955eko agustuaren 29xan) Oñatiko Etxeberria jatetxian ataratakua da. Goitik behera eta ezkerretik eskumara honeitex dituzue egun haretan alkartu ziranak.

Goixan zutik: Joxe Mari **Aranburu**, Kale Zaharreko Kurtzetxokua; Felix **Barrena**, Torreazoko Munazategikua; Jexux **Aranburu**, Mendiko kalekua; Iñaxio **Urresti**, Atzeko kalekua; Julian **Altube**, Santxolopeztegiko Osiñagakua; Federiko **Mendizabal**, Kale Zaharrekoa; Felix **Biain**, Murgiko Arretxekua; eta Hilario **Alzelai**, **Arruza**, Kasablankako (Goribar auzua) Errotari Zaharrenekua.

Behian makurtuta: Norberto **Urzelai**, Garibaiko Migelen Txikiñenekua; Felix **Santa Kruz**, Kale Zaharreko Errementarixanekua; Anjel **Anduaga**, Larrañako Azkoitixenekua; Joxe **Anduga**, San Antue kalekua; eta Antonio eta Pedro **Ugarte** anaiak. Arboledako (Goribar auzua) Olaldekuak.

J. E.

Plazaolak ataratako fotografixa hau Felix Barrenaren bidez eskuratu dogu. Informaziño gehixena Felixena da eta Federiko Mendizabalak be argibide batzuk emun dosku. Eskerrik asko bixoi.